



Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo



GIZARTE, KULTURA
ETA KOMUNITATEKO
ZERBITZUAK

Profesionaltasun-ziurtagiria
MENDEKO PERTSONEI ARRETA SOZIOSANITARIOA EMATEA
ERAKUNDE SOZIALETAN

[2. maila]



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAINETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES



koalifikazioen eta
lanbide heziketaren
euskal institutua
Instituto vasco de
cualificaciones y
formación profesional

Edukiak

I PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIAREN IDENTIFIKAZIOA

IZENA	06
KODEA	06
LANBIDE-ARLOA	06
LANBIDE-EREMUA	06
ERREFERENTZIAKO LANBIDE-PRESTAKUNTZA	06
LANBIDE-PRESTAKUNTZAREN MAILA	06
GAITASUN OROKORRA	06
PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIA OSATZEN DUTEN GAITASUN-ATALEN ZERRENDA	06
LANBIDE-INGURUNEA	06
PRESTAKUNTZA-MODULUEN ETA -ATALEN ZERRENDA ETA HAIEN IRAUPENA	07

II PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIAREN LANBIDE-PROFILA

1	1. gaitasun-atala	10
	DIZIPLINARTEKO TALDEAK PERTSONENTZAT ETA HAIEN INGURUNERAKO ADIERAZTEN DITUEN ARRETARAKO ESKU-HARTZEAK PRESTATZEA ETA BABESTE, ERAKUNDE-EREMUAN	
2	2. gaitasun-atala	11
	MENDEKO PERTSONENTZAKO ARRETA FISIKOKO ESKU-HARTZEAK EGITEA ERAKUNDE- EREMUAN	
3	3. gaitasun-atala	12
	MENDEKO PERTSONENTZAKO ARRETA SOZIOSANITARIOKO ESKU-HARTZEAK EGITEA ERAKUNDE-EREMUAN	
4	4. gaitasun-atala	14
	MENDEKO PERTSONENTZAKO ARRETA PSIKOSOZIALEKO ESKU-HARTZEAK EGITEA ERAKUNDE- EREMUAN	

III PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIRAKO PRESTAKUNTZA

1	1. prestakuntza-modulua:	18
	ESKU-HARTZEEN ANTOLAMENDUAN LAGUNTZEA, ERAKUNDE-EREMUAN	
2	2. prestakuntza-modulua:	21
	HIGIENE- ETA ELIKAGAI-ARRETAKO ESKU-HARTZEAK ERAKUNDEETAN	
3	3. prestakuntza-modulua:	23
	ARRETA SOZIOSANITARIOKO ESKU-HARTZEAK ERAKUNDEETAN	
4	4. prestakuntza-modulua:	25
	LAGUNTZA PSIKOSOSIALA ETA HARREMAN- ETA KOMUNIKAZIO-ARRETA ERAKUNDEETAN	
5	5. prestakuntza-modulua:	29
	MENDEKO PERTSONENTZAKO ARRETA SOZIOSANITARIOKO LANEKOAK EZ DIREN JARDUNBIDEAK ERAKUNDE SOZIALETAN	



IV PRESTATZAILEENTZAKO ESKAKIZUNAK, GUNEEN, INSTALAZIOEN ETA TRESNERIAREN GUTXIENEO ESKAKIZUNAK ETA SARTZEKO IRIZPIDEAK

PRESTATZAILEAK	32
GUNEAK, INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK	33
SARTZEKO IRIZPIDEAK	34



I PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIAREN IDENTIFIKAZIOA



IZENA

MENDEKO PERTSONEI ARRETA SOZIOSANITARIOA EMATEA ERAKUNDE SOZIALETAN

KODEA

SSCS0208

LANBIDE-ARLOA

Gizarte, kultura eta komunitateko zerbitzuak

LANBIDE-EREMUA

Gizarte-arreta.

ERREFERENTZIAKO LANBIDE-PRESTAKUNTZA

SSC320-2 Mendeko pertsonen arreta soziosanitarioa erakundeetan (1368/07 EDa, 2007ko urriaren 19koa).

LANBIDE-PRESTAKUNTZAREN MAILA

2

GAITASUN OROKORRA

Mendeko pertsonen arreta soziosanitarioa ematea beren jarduera gauzatzen den erakundeetan, diziplinarteko taldeak diseinatutako estrategiak eta haien autonomia pertsonala eta ingurunearekiko harremanak mantentzeko eta hobetzeko prozedurak aplikatuz.

PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIA OSATZEN DUTEN GAITASUN-ATALEN ZERRENDA

- UC1016_2: Diziplinarteko taldeak pertsonentzat eta haien ingurunerako adierazten dituen arretarako esku-hartzeak prestatzea eta babestea, erakunde-eremuan
- UC1017_2: Mendeko pertsonentzako arreta fisikoko esku-hartzeak egitea erakunde-eremuan.
- UC1018_2: Mendeko pertsonentzako arreta soziosanitarioko esku-hartzeak egitea erakunde-eremuan.
- UC1019_2: Mendeko pertsonentzako arreta psikosozialeko esku-hartzeak egitea erakunde-eremuan.

LANBIDE-INGURUNEA

Lanbide-esparrua

Eremu publikoan eta pribatuan kokatzen da, arreta soziosanitarioko zerbitzuak ematen dituzten zentro edo ekipamenduetan: egoitza-zentroak, eguneko zentroak.

Ekoizpen-sektoreak

Erakunde sozialetan egonaldi partzialean, aldi baterakoan edo iraunkorrean dauden pertsonen zerbitzu sozialak ematen lan egiten du su.

Lanbideak edo lanpostuak

5129.003.0 Minusbaliatu fisiko, psikiko eta sentsorialen zainzailea.
Mendeko pertsonen zainzailea erakundeetan.



Gerokultorea.

PRESTAKUNTZA-MODULUEN ETA -ATALEN ZERRENDA ETA HAIEN IRAUPENA

PRESTAKUNTZA-MODULUA	ORDUAK	PRESTAKUNTZA-ATAKAK	ORDUAK
MF1016_2 Esku-hartzeen antolamenduan laguntzea, erakunde-eremuan.	100	UF0127. Erakundeetan mendeko pertsonen harreran laguntzea.	30
		UF0128. Erakundeetan mendeko pertsonentzako jardueren antolamenduan laguntzea	70
MF1017_2 Elikagai- eta higiene-arretako esku-hartzeak erakundeetan.	70		
MF1018_2 Arreta soziosanitarioko esku-hartzeak erakundeetan.	70		
MF1019_2 Laguntza psikosoziala eta harreman- eta komunikazio-arreta erakundeetan.	130	UF0129. Mendeko pertsonen animazio soziala erakundeetan.	30
		UF0130. Erakundeetan dauden mendeko pertsonen eguneroko jarduerak mantentzea eta hobetzea.	50
		UF0131. Erakundeetan dauden mendeko pertsonekin komunikatzeko teknikak.	50
MP0029 Mendeko pertsonentzako arreta soziosanitarioko lanekoak ez diren jardunbideak erakunde sozialetan.			80
IRAUPENA, GUZTIRA	450		

II LANBIDE-PROFILA

1. gaitasun-atala
DIZIPLINARTEKO TALDEAK PERTSONENTZAT ETA HAIEN
INGURUNERAKO ADIERAZTEN DITUEN ARRETARAKO
ESKU-HARTZEAK PRESTATZEA ETA BABESTEAK,
ERAKUNDE-EREMUAN

1

2. gaitasun-atala
MENDEKO PERTSONENTZAKO ARRETA FISIKOKO
ESKU-HARTZEAK EGITEA ERAKUNDE-EREMUAN

2

3. gaitasun-atala
MENDEKO PERTSONENTZAKO ARRETA SOZIOSANITARIOKO
JARDUERAK EGITEA ERAKUNDE-EREMUAN

3

4. gaitasun-atala
MENDEKO PERTSONENTZAKO ARRETA PSIKOSOZIALEKO
ESKU-HARTZEAK EGITEA ERAKUNDE-EREMUAN

4



1

1. gaitasun-atala:

DIZIPLINARTEKO TALDEAK PERTSONENTZAT ETA HAIEN INGURUNERAKO ADIERAZTEN DITUEN ARRETARAKO ESKU- HARTZEAK PRESTATZEA ETA BABESTEA, ERAKUNDE-EREMUAN

Kodea: UC1016_2

Lanbide-burutzapenak eta burutzapen-irizpideak:

LB1: Egoiliar berrien harreraren laguntzea diziplinarteko taldeari, banakako zaintza-planean lagunduz.

BI1.1 Egoiliar/erabiltzaile berri bat iristen denean erakundera, diziplinarteko taldearekin batera ematen zaio laguntza, prozeduraren arabera eta harrera-protokoloan ezarritako irizpideen arabera.

BI1.2 Erabiltzailearen beharrianak diziplinarteko taldeari jakinarazten zaizkio, haren ongizatea bermatzeko.

BI1.3 Erabiltzaileak eguneroko bizimoduan dituen portaera, jarrera eta ohiturak aztertzen dira, eta diziplinarteko taldeari jakinarazten zaizkio, zer egin zehazteko.

LB2: Diziplinarteko taldeak eguneroko bizitzako jardueretan laguntzeko programatuta dituen esku-hartzeak prestatzea.

2.1 Aldizka materialen egoera eta haien kantitatea ikuskatuz gero, garaiz aurreikus daitezke material berriak ekartzeko eta erosteko beharrak, eta ezarritako prozeduraren arabera bideratzen da.

BI2.2 Jarduera antolatuek erabiltzaileen beharrei erantzuten diete, eta giza baliabideak eta materialak optimizatzen dituzte, ezarritako jarduera-protokoloetara egokitzen direla.

BI2.3 Erabiltzailearen parte-hartzea sustatzeko moduan prestatzen dira jarduerak, haren autonomia mantentzeko eta hobetzeko.

BI2.4 Eguneroko bizitzako jardueretan laguntzean, profesional adituak emandako aginduak betetzen dira.

LB3: Jarduerak antolatzen parte hartzea diziplinarteko taldearekin, zerbitzuen kalitate-maila eta erabiltzaileen gogobetetzea bermatuz.

BI3.1 Aldez aurretik espazioen segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak egiaztatuz gero, erabiltzaileek beren ezaugarri pertsonalen arabera parte hartuko dutela bermatzen da, eta hauek errazten dira: giza baliabideak eskura izatea eta materialak eta laguntza teknikoak eskura eta prest izatea.

BI3.2 Erabiltzaileei jarduera programatuen berri aldez aurretik ematen zaie, parte-hartzea motibatuz eta errazteko duten baliagarritasuna kontuan izanda.

BI3.3 Erabiltzaileen ezaugarriak eta interesak kontuan hartzen dira jarduerak egiteko garaian, eta diziplinarteko taldearen jarraibideei jarraitzen zaie, bakoitzaren beharretara egokitzen den erantzuna emateko.

BI3.4 Materialen txukuntasunari eta egoerari dagozkien gorabeheren berri ematen zaio diziplinarteko taldeari, haiek konpontzeko neurriak hartzeko.

Lanbide-testuingurua:

Zerbitzuak egiteko eta/edo sortzeko baliabideak

Erakundeko jarduera-plana. Zereginak egiteko protokoloak.

Lanaren emaitza edo produktuak

Diziplinarteko taldeari laguntzea egoiliar berrien harreraren. Diziplinarteko taldeak eguneroko bizitzako jardueretan laguntzeko programatuta dituen esku-hartzeak prestatzea. Erakundeko jarduerak antolatzen parte hartzea diziplinarteko taldearekin batera.

Erabilitako edo sortutako informazioa

Erabiltzaile-fitxa. Altzarien eta oinarritzko elementuen inbentarioa. Erakundeko arriskuak prebenitzeko arauak. Barne-araudia. Erakundeko jardueren programak. Larrialdietarako planak. Larrialdietan jarduteko informazio praktikoa.



2. gaitasun-atala:

2

MENDEKO PERTSONENTZAKO ARRETA FISIKOKO ESKU-HARTZEAK EGITEA ERAKUNDE-EREMUAN

Kodea: UC1017_2

Lanbide-burutzapenak eta burutzapen-irizpideak

LB1: Erabiltzaileak higie pertsonaleko kondizio egokietan edukitzea, haien beharren arabera eta aurrez ezarritako esku-hartze planaren arabera behar duten laguntza emanez.

BI1.1 Higie-ohitura osasungarriari eta erabili beharreko produktu eta materialei buruzko informazioa eta laguntza jasotzen ditu erabiltzaileak, eta autonomiaz egin ezin dituen zereginak haren ordeztu egiten dira.

BI1.2 Neurri bateko mendekotasun funtzionala duten erabiltzaileei zailtasun espezifikoak dituzten higie-zaintzetan laguntzen zaie, betiere egiaztatuz garbi eta lehor daudela eta arreta berezia jarri gorpuzteko tolesetan, ahoan eta arrisku bereziko beste toki batzuetan.

BI1.3 Erabateko mendekotasun funtzionala duten erabiltzaileak erabat garbitzen dira, ohean edo dutxan, dagokionaren arabera, betiere egiaztatuz garbi eta lehor daudela eta arreta berezia jarri gorpuzteko tolesetan eta arrisku bereziko beste toki batzuetan, erabiltzailearen intimitatea errespetatuz.

BI1.4 Unitaterako ezarritako plangintzaren arabera egiten dira dutxak eta bainuak.

BI1.5 Kasuaren arabera behar den laguntzarekin jantzen zaizkio arropa eta oinetako erosoak erabiltzaileari, tenperatura eta urte-sasoia kontuan hartuta.

BI1.6 Erabiltzaileak bere burua garbitzen parte hartzea sustatzen da, norbere zaintzarako ezarritako jarraibideen arabera.

BI1.7 Erabiltzailearen higie pertsonaleko jarduerari eta haiek gauzatzean gerta litezkeen gorabeherari buruzko informazioa jaso egiten da, eta ezarritako prozeduren arabera jakinarazten da, une egokian.

BI1.8 Osasun-langileekin batera egiten dira hil ondoko zainketak, ezarritako protokoloak jarraituz.

LB2: Erabiltzailearen gela txukun eta baldintza higieniko-sanitario egokietan izaten laguntzea.

BI2.1 Erabiltzailearen gauzak eta altzariak garbi eta txukun daudela egiaztatzen da, aldezturik ezarritako protokoloen arabera.

BI2.2 Ingurune baldintzak pertsonaren behar espezifikoetarako egokiak direla egiaztatzen da: argi-intentsitatea, tenperatura, zarata-maila onargarria, aireztapena.

BI2.3 Ohea erabiltzailearen beharren arabera egiten da, ezarritako kalitate-irizpideen arabera, arropa zuria garbiarekin, izurrik eta hezetasunik gabe, eta posizio egokian.

BI2.4 Erabiltzailearen ingurunearen higierako jarduerari eta haiek gauzatzean gerta litezkeen gorabeherari buruzko informazioa jaso egiten da, eta ezarritako prozeduren arabera jakinarazten da, une egokian.

LB3: Erabiltzailea elikagaia hornitzea eta elikagaiak ematea, eta, beharrezkoa denean, jaten laguntzea.

BI3.1 Erabiltzaileari jakinarazten zaio elikagaiak emango zaizkiola, eta horretarako prestatzen da, haren beharren arabera, aldezturik ezarritako zaintza-planari jarraituz.

BI3.2 Dieta-erria begiratu ostean, janariak banatu eta zerbitzatzen dira.

BI3.3 Elikagai solidoak edo likidoak ematen zaizkie jateko laguntza espezifiko behar duten erabiltzaileei, beharren arabera, eta gorpuzteko jarrera egokian dutela egiaztatuz.

BI3.4 Jaten laguntzen zaie eskatzen duten erabiltzaileei.

BI3.5 Egiaztatzen da erabiltzaileek, mendeko nahiz autonomo, jan dutela, zaintza-planaren arduradunari horren berri ematen zaio, eta laguntza-taldeak ezarritako protokoloaren arabera erregistratzen da.

Lanbide-testuingurua:

Zerbitzuak egiteko eta/edo sortzeko baliabideak

Erabiltzaileari eta haren inguruneari buruzko banakako informazioa. Pertsonentzako arreta- eta zainketa-prozedurak. Egin behar diren jardueren programazioa. Erabiltzen diren tekniken protokoloak. Erabiltzailearen etxeko gauzak. Arropa zuria. Pertsonen arreta fisikoan erabiltzen diren materialak eta tresnak, alor





hauetakoak: garbitasuna eta txukuntasuna, elikagaiak ematea, ohe artikulatuak eta bainurako aulkiak. Erregistratzeko dokumentazioa, kasurako, gertakari- eta segimendu-orriak eta dieta-orriak.

Lanaren emaitza edo produktuak

Erabiltzaile asebetea arretari, tratuari eta oinarritzko behar fisikoei dagokienez: informazioa ematen zaio, garbitu eta elikatu egiten da eta larrialdietan tratatu egiten da. Eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko abilezia eta trebetasunak mantendu eta hobetzen dituen erabiltzailea. Egindako erregistroak. Erabiltzaileen bilakaera-txosten osatuak. Materialak eta tresnak higie-ne-baldintza egokietan.

Erabilitako edo sortutako informazioa

Erabiltzaileen egoerari buruzko informazio idatziak. Erabiltzaileari eta familiari zuzenean behatuta ondorioztatutako informazioa. Jarduera-jarraibideak. Tratamendu-orriak, dieta-orriak, prozedura-eskuliburuak, erabiltzen diren tekniken protokoloak, erabiltzen diren ekipoen jarraibideen eskuliburuak, iruzkin- eta bilakaera-orriak eta erregistro-orriak, besteak beste. Informazio sanitarioari buruzko eskuliburuak, zainketei buruzkoak eta segurtasun-planei buruzkoak. Gaiarekin lotutako bibliografia, legedia eta araudia.

3. gaitasun-atala

3

MEDEKO PERTSONENTZAKO ARRETA SOZIOSANITARIOKO ESKU-HARTZEAK EGITEA ERAKUNDE-EREMUAN

Kodea: UC1018_2

Lanbide-burutzapenak eta burutzapen-irizpideak:

LB1: Erakundeko langileekin batera aritzea erabiltzailea miatzen eta hari behatzen laguntzen duten jardueretan.

BI1.1 Higie-ne-ohitura osasungarriei eta erabili beharreko produktu eta materialei buruzko informazioa eta laguntza jasotzen ditu erabiltzaileak, eta autonomiaz egin ezin dituen zereginak haren orde-z egiten dira.

BI1.2 Neurri bateko mendekotasun funtzionala duten erabiltzaileei zailtasun espezifikoak dituzten higie-ne-zaintzetan laguntzen zaie, betiere egiaztatuz garbi eta lehor daudela eta arreta berezia jarri-z gorputzeko tole-setan, ahoan eta arrisku bereziko beste toki batzuetan.

BI1.3 Erabateko mendekotasun funtzionala duten erabiltzaileak erabat garbitzen dira, ohean edo dutxan, dagokionaren arabera, betiere egiaztatuz garbi eta lehor daudela eta arreta berezia jarri-z gorputzeko tole-setan eta arrisku bereziko beste toki batzuetan, erabiltzailearen intimitatea errespetatuz.

LB2: Erakundeko langileekin batera aritzea medikamentuak ematea errazten duten jardueretan.

BI2.1 Erabiltzailea medikamentuak ahotik, uzkitik eta bide topikotik hartzeko informatzen eta prestatzen laguntzea.

BI2.2 Erabiltzailea medikamentuak emateko posizio egokian dago, eta medikamentuak hartu dituela egiaztatzen da.

BI2.3 Medikamentuak ahotik, uzkitik eta bide topikotik ematen dira, zentroko osasun-langileekin batera, aurreikusitako jarduera-protokolei eta zaintza-planaren arduradunaren jarraibideei jarraikiz.

BI2.4 Medikamentuak emateko jardueri eta gerta litezkeen gorabeherei buruzko informazioa ematen zaio zaintza-planaren arduradunari.

BI2.5 Garbitzeko enemak jartzeko prestatzen da erabiltzailea, eta informazioa ematen zaio.

LB3: Erabiltzailea lekualdatzeko prestatzen laguntzea, harekin egonez, zainduz eta lagunduz, eta lekualdatzerako ezarritako baldintzak betetzen direla bermatuz.

BI3.1 Erabiltzaileari eta familiari lekualdatzeko zergatien eta helburuko egoitzaren berri ematen zaie, lekualdatu baino lehen.

BI3.2 Ezarritako prozedurari jarraikiz prestatzen da erabiltzailea lekualdatzerako.

BI3.3 Lekualdatzerako laguntza teknikoak prest daude eta egokiak dira erabiltzailearen kondizioetarako.



BI3.4 Erabiltzaileari lekualdatzeetan laguntzen zaio (lekualdatzearen berri eman ostean), lekualdatzeak segurtasun- eta erosotasun-kondizioak betetzen ditu, eta erabiltzailearen uneko beharrak asetzen direla bermatzen da.

BI3.5 Lekualdatzean izandako gorabeheren berri ematen zaie zaintza-planaren arduradunei, eta, dagokionean, erregistratu egiten dira.

LB4: Erabiltzaileari ahalmen fisikoak eta mugitzekoak mantentzeko eta hobetzeko jarduerak egiten laguntzea, kasu bakoitzean zehaztutako plan pertsonalari jarraikiz.

BI4.1 Kasu bakoitzean erabili behar diren mobilizazio-jarraibideei eta laguntza teknikoei buruzko informazioa jasotzen du erabiltzaileak.

BI4.2 Erabiltzailea laguntza teknikoetan jartzen da, mobilizatu egiten da eta ibiltzen denean harekin egoten da, ezarritako protokoloen arabera, eta kasuan kasu ezaugarri berezietara egokituz, laguntza-taldeko beste kide batzuekin batera.

BI4.3 Egiaztatzen da erabiltzailea ahalik eta erosoena eta posizio anatomiko egokienean dagoela, ezarritako zaintza-planaren arabera.

BI4.4 Erabiltzaileari zentroko eguneroko jardueretan lagunduz, jarduera horiek zaintzen dira eta ondo egiten direla egiaztatzen da.

BI4.5 Gertatutako gorabeheren berri ematen zaio diziplinarteko taldeari, eta erregistratu egiten dira.

LB5: Istripuak prebenitzeko teknikak aplikatzen parte hartzea, ezarritako protokoloen eta goragoko arduradunaren jarraibideen arabera.

BI5.1 Istripuak prebenitzeko oinarritzko teknikak, segurtasun-protokoloetan eta -eskuliburuetan jasotzen direnak, zaintza-planaren ardura duten osasun-langileekin lankidetzan aplikatzen dira, egoeraren arabera.

BI5.2 Erabiltzailearentzat nahiz profesionalarentzat ezarritako babes-, higiene- eta segurtasun-neurriak betez egiten dira esku-hartzeak.

BI5.3 Hil edo biziko larrialdien kasuan, protokolo espezifikoan zehaztutako arduradunari jakinarazten zaio, eta aurreikusitako jarduera-mekanismoak martxan jartzen dira.

BI5.4 Gertatutako gorabeheren berri ematen zaio diziplinarteko taldeari, eta erregistratu egiten dira, ezarritako protokoloen arabera.

Lanbide-testuingurua:

Zerbitzuak egiteko eta/edo sortzeko baliabideak

Erabiltzaileari eta haren inguruneari buruzko banakako informazioa. Pertsonentzako arreta- eta zainketa-prozedurak. Egin behar diren jardueren programazioa. Erabiltzen diren tekniken protokoloak. Medikamentuak prestatzean eta ematean pertsonen arreta soziosanitarioan erabiltzen diren materialak eta tresnak: ohe artikulatuak, makuluak, gurpil-aulkiak, taka-takak, aerosolterapiako eta oxigenoa emateko gailu eramangarriak, presioagatiko ultzerak prebenitzeko erabiltzen diren materialak, infekzioak prebenitzeko erabiltzen direnak eta infekzioak kontrolatzeko eta laginak eta hondakinak jasotzeko askotariko material klinikoak. Erregistratzeko dokumentazioa: gertakari- eta segimendu-orriak.

Lanaren emaitza edo produktuak

Erabiltzaile asebetea arretari, tratuari eta oinarritzko behar fisikoei dagokienez: informazioa ematen zaio, garbitu eta elikatu egiten da, eta larrialdietan tratatu egiten da. Eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko abilezia eta trebetasunak mantendu eta hobetzen dituen erabiltzailea. Egindako erregistroak. Erabiltzaileen bilakaera-txosten osatuak. Materialak eta tresnak higiene-baldintza egokietan.

Erabilitako edo sortutako informazioa

Erabiltzaileen egoerari buruzko informazio idatziak. Erabiltzaileari zuzenean behatuta ondorioztatutako informazioa. Jarduera-jarraibideak. Tratamendu-orriak. Prozedura-eskuliburua, erabiltzen diren tekniken protokoloak, erabiltzen diren ekipoen jarraibide-eskuliburuak. Iruzkina- eta bilakaera-orriak, erregistro-orriak. Osasun-informazioari buruzko eskuliburuak, zainketei buruzkoak eta segurtasun-planari buruzkoak. Erlazionatutako bibliografia, indarrean dagoen erlazionatutako araudia.



4

4. gaitasun-atala

MENDEKO PERTSONENTZAKO ARRETA PSIKOSOZIALEKO ESKU-HARTZEAK EGITEA ERAKUNDE-EREMUAN

Kodea: UC1019_2

Lanbide-burutzapenak eta burutzapen-irizpideak:

LB1: Erabiltzailearekin egitea jarduera programatuak, erabiltzailearen parte-haratzeari erraztuz jarduera horietan.

BI1.1 Profesionalak emandako jarraibide eta argibideen arabera laguntza eta babes emozionala ematen zaio erabiltzaile bakoitzari, alderdi hauek kontuan izanda:

- Interes pertsonalak.
- Maila kulturala.
- Osasun-egoera.
- Norberaren harreman- eta komunikazio-beharrak.
- Egokitzapen-prozesuaren unea.

BI1.2 Erabiltzaileari banaka ematen zaio arreta, haren beharrei erantzuten zaie, azaltzen diren zailak eta kontuak argitzen dira, eta profesional eskudunarengana bideratzen da.

BI1.3 Erabiltzaileekin egitea erakundetik kanpoko jarduera programatuak: txangoak, bisita kulturalak, eta bestelakoak, jasotako jarraibide eta orientazioen arabera egiten dira.

BI1.4 Jardueren garapena, eta haietan sortutako gorabeherak, ezarritako prozeduren arabera aztertzen eta erregistratzen dira.

LB2: Erakundeko eguneroko bizitza animatzen eta dinamizatzen laguntzea, gatazka-egoeretan parte hartuz eta, bere mailan, sortutako gorabeherak konpontuz.

BI2.1 Zuzeneko behaketatik lortutako informazioaren eta diziplinarteko taldeari transmititutako informazioaren bidez ikus daiteke zer ohitura eta trebetasun dituzten erabiltzaileak.

BI2.2 Erakundeak programatutako jardueri buruzko informazioa nahikoa aurrerapenez transmititzen zaie erabiltzaileei, haien motibazioa sustatzeko eta lankidetzara aktiboak errazteko.

BI2.3 Jardueren egutegia zein den jakinez gero, aurrez prestatu, doitu eta jar daitezke altzariak, materialak eta guneak, baita jardura haren eskumen-eremuan garatzeko kudeaketak ere.

BI2.4 Taldea dinamizatzen laguntzen da kolektiboari egokitutako teknikak eta estrategiak aplikatuz, dagozkien profesionalak ezarritako jarraibideen arabera, eta giro egokia sortuz eta parte-hartzaile guztien parte-hartzea sustatuz.

BI2.5 Jardura egin bitartean egiten den behaketaren bidez lortutako informazioaren bidez detektatzen dira harremanekin lotutako gatazka-egoerak eta sortzen diren gorabehera pertsonalak, familiakoak eta/edo taldekoak, eta erregistratu eta diziplinarteko talderi transmititzen zaizkio ezarritako prozeduraren arabera.

BI2.6 Diziplinarteko taldean ezarritako irizpideen arabera laguntzen da eguneroko bizitzako gatazkak kudeatzen.

LB3: Erabiltzailearen autonomia psikologikoa mantentzeko eta lantzeko jarduerak eta ariketak, eta errehabilitatzekoak eta okupazionalak egiten laguntzea, profesional eskudunen orientabideei jarraituz.

BI3.1 Erabiltzaileei arreta eta tratua banaka ematen zaizkie, haien eskaerei erantzunez eta ezarritako irizpideen arabera.

BI3.2 Lanketaren bidez, motibazioa eta prestaketa emozionala lortzen dira, erabiltzailearen laguntza eta prestasuna sustatzeko.

BI3.3 Mantentze- eta entrenatze-ariketak egiteko ematen den laguntza jardura-protokolora doitzen da, eta alderdi hauek hartzen ditu kontuan:

- Profesional eskudunen aginduak.
- Osasun-egoera.
- Motibazio-maila.
- Erabiltzailearekin finkatutako harremana.
- Erabiltzailearen bilakaera.

BI3.4 Esku-hartzean egindako behaketa eta sortutako gorabeherak ezarritako prozeduraren arabera erregistratzen dira, eta diziplinarteko taldeari transmititzen zaizkio, erabiltzaileak zer bilakaera izan duen ikusteko eta egin beharreko doikuntzak egiteko.

LB4: Erabiltzaileei komunikatzen laguntzea eta komunikazioa estimulatzea eguneroko bizitzan eta harreman sozialean moldatzea sustatuz, eta, behar izanez gero, komunikazio-sistema alternatiboak erabiliz.



BI4.1 Erabiltzaileari informazioa argia, zehatza eta soilik egin beharreko esku-hartzei buruzkoa transmititzen zaio, haren motibazioa eta lankidetzaz sustatzeko, erabiltzaile bakoitzaren ezaugarri eta beharretara egokituta.

BI4.2 Komunikazioa eta aurreikusitako jardueretako doikuntzak haren jardueraren eremuan egiten dira, eta erabiltzaileen arteko interakzio soziala errazten dute, erabiltzaileen ezaugarriak kontuan hartuta.

BI4.3 Laguntza teknikoak eta komunikazio-sistema alternatiboak jasotako jarraibideen arabera erabiltzen dira, eta igorritako mezua ulertu den egiaztatzen da.

BI4.4 Erabiltzailearen jardueraren eremuan komunikazio-alderdien zuzeneko behaketa erregistratu egiten da eta diziplinari taldeari transmititzen zaio ezarritako prozedurari jarraituz.

BI4.5 Familia-ingurunearekin izandako harremanetatik lortutako informazioa eta behar bezala erregistratua diziplinari taldeari transmititzen zaio, hark jakin eta ebalua dezan.

Lanbide-testuingurua:

Zerbitzuak egiteko edo sortzeko baliabideak

Erabiltzaileari eta haren inguruneari buruzko informazioa. Autonomia fisikoa edo psikologikoa mantentzeko eta lantzeko banakako jarduerak egiteko protokoloak. Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio alternatiborako materiala eta tresnak. Erabiltzaileen jarduerari eta bilakaerari buruzko informazioa jasotzeko eta transmititzeko materiala. Ingurune baliabideei buruzko informazioa.

Lanaren emaitza edo produktuak

Komunikazioko, autodeterminazioko, harremanetako eta afektuko behar psikosozialak beteak dituzten erabiltzaileak eta autonomia-maila optimizatua dutenak. Erabiltzaileen behar psikosozialak betetzen esku hartzen duten familiak eta ingurunea. Harreman errazak erabiltzailearen, profesionalaren eta familiaren artean. Diziplinari taldeari erabiltzailearen bilakaerari eta beharrei buruz noiz behinka transmititzen zaion informazioa. Erabiltzaile asebeteta, motibatua eta beren ingurunean integratua.

Erabilitako edo sortutako informazioa

Txosten pertsonala. Norbanako txostenak. Profesional eskudunen idatzizko eta ahozko orientazioak eta jarraibideak. Jarduerak egiteko protokoloak, erabiltzailearen protokoloak eta profesionalaren zereginak. Erakundearen zerbitzuen eta esku-hartzeen programak, haien helburuen araberrak. Bibliografia espezifikoak.

III PRESTAKUNTZA

1. prestakuntza-modulua:
ESKU-HARTZEEN ANTOLAMENDUAN LAGUNTZEA,
ERAKUNDE-EREMUAN

1

2. prestakuntza-modulua:
ARRETA HIGIENIKO-SANITARIOKO ESKU-HARTZEAK ERAKUNDEETAN

2

3. prestakuntza-modulua:
ARRETA SOZIOSANITARIOKO ESKU-HARTZEAK ERAKUNDEETAN

3

4. prestakuntza-modulua:
LAGUNTZA PSIKOSOZIALA ETA HARREMAN- ETA
KOMUNIKAZIO-ARRETA ERAKUNDEETAN

4

5. prestakuntza-modulua:
MENDEKO PERTSONENTZAKO ARRETA SOZIOSANITARIOKO
LANEKOAK EZ DIREN JARDUNBIDEAK ERAKUNDE SOZIALETAN

5



1

1. prestakuntza-modulua: ESKU-HARTZEEN ANTOLAMENDUAN LAGUNTZEA, ERAKUNDE-EREMUAN

Kodea: MF1016_2

Gaitasun-atal honi lotuta dago: UC1016_2 Diziplinarteko taldeak pertsonentzat eta haien ingurunerako adierazten dituen arretarako esku-hartzeak prestatzea eta babestea, erakunde-eremuan.

Iraupena: 100 ordu

1.1. prestakuntza-atala ERAKUNDEETAN MENDEKO PERTSONEN HARRERAN LAGUNTZEA

Kodea: UF0127

Iraupena: 30 ordu

Gaitasun-erreferentea: Prestakuntza-atal hau bat dator LB1 lanbide-burutzapenarekin.

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Esku-hartzen den kolektiboei zuzendutako arreta sozialeko erakundeetan antolamendu- eta funtzionamendu-eredua identifikatzea.

EI1.1 Mendeko pertsonentzako bizitegi-erakundeek bete behar dituzten antolamendu- eta funtzio-baldintzak eta ezaugarriak deskribatzea.

EI1.2 Bizitegi-erakunde bateko diziplinarteko taldearen osaera identifikatzea, eta kide bakoitzaren funtzioak eta koordinazio-prozedurak zehaztea.

EI1.3 Erakunde batean, diziplinarteko talde bateko kide den profesional gisa dituen funtzioak zerrendatzea eta deskribatzea, eta informazioa transmititzeko prozedura eta erakundean parte hartzeko prozedura aipatzea.

EI1.4 Azaltzea nola babesa eman dakiekeen beste profesional batzuei erakunde batera iristen den erabiltzaile berri bati laguntza ematean, harrera-protokolo bati jarraituz.

Edukiak:

1. Mendeko pertsonen eta haien inguruneari arreta emateko esku hartzea

Mendeko pertsonen zuzeneko arreta emateko erakundeak, programak eta profesionalak: ezaugarriak.

- Arreta soziosanitarioko profesionalen zeregina. Diziplinarteko taldea.

- Arreta soziosanitarioko profesionalaren zereginak. Eskumena eta erantzukizuna arlo hauetan:

- Elikadura.
- Higienea eta garbitasuna.
- Garbiketa.
- Osasun-arreta.
- Medikamentuak.
- Mobilizatzea, lekuz aldatzea eta ibiltzea.
- Lehen laguntzak.
- Laguntza psikosoziala.
- Eguneroko jarduerak.
- Komunikazioa.



2. Egoiliar berriei harrera egiteko jarduera-protokoloak:

- Mendeko pertsonentzako arreta, haien mendekotasun-mailaren arabera.
 - Mendekotasun moderatua.
 - Mendekotasun larria.
 - Mendekotasun handia.
- Mendeko pertsonetikiko esku-hartze sozialeko printzipio etikoak.
 - Deontologia profesionala.
 - Jarrerak eta balioak.
 - Mendeko pertsonen konfidentzialtasuna eta intimitatea errespetatzea.
 - Arreta soziosanitarioko profesionalaren zeregina mugatzea.
- Osoko arreta esku-hartzean.
 - - Erabiltzailearen beharren berri ematea diziplinarteko taldeari.

1.2. prestakuntza-atala

Erakundeetan mendeko pertsonentzako jardueren antolamenduan laguntzea

Kodea: UF0128

Iraupena: 70 ordu

Gaitasun-erreferentia: Prestakuntza-atal hau bat dator LB2 eta LB3 lanbide-burutzapenekin.

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Pertsonen eguneroko bizitzako jarduerak betetzeko esku-hartzeak garatzeko prozesua definitzea, autonomia hobetzea eta/edo mantentzea sustatuz.

EI1.1. Mendeko pertsonen autonomia-mailak identifikatzea, eta jarduera-protokoloetara egokitzeko aukera ematen duten oinarriko beharrak betetzearekin erlazionatzea.

EI1.2. Erabiltzaileen parte-hartzea sustatzen duten prozedurak azaltzea.

EI1.3. Eguneroko bizitzan laguntzeko formak ezagutzea eta aintzat hartzea.

EI1.4. Profesional eskudunak ezarritako programa erreferente gisa duen mendeko pertsonen erakunde bateko esku-hartzeko kasu praktikoko batean, eguneroko bizitzako jarduerak garatzeko jarduerak definitzea.

A2: Erakunde sozial batean jarduera soziosanitarioak antolatzen parte hartzeko modua ezartzea, diziplinarteko taldearekiko lankidetzaz azalduz.

EI2.1. Erakunde sozialetako jarduera soziosanitarioetako parte-hartzea deskribatzea, egin beharreko funtzioak adieraziz.

EI2.2. Jarduera soziosanitarioen garapenari buruzko informazioa erabiltzaileei nola transmititu azaltzea.

EI2.3. Erakunde sozial bateko jarduera soziosanitarioen garapena simulatzeko kasu praktikoko batean:

- Aurreikusitako jardueren garapenari buruzko informazioa ematea erabiltzaileei, eta erabiltzaileen parte-hartzea sustatzea.
- Jarduerak egiteko, erabiltzaileen ezaugarriak eta interesak kontuan hartzea.
- Materialen ordenan eta egoeran egon daitezkeen gorabeherak aztertzea, eta haien berri ematea diziplinarteko taldeari.

EI2.4. Pertsonen arretako erakundeetako altzari tipoen eta materialen inbentarioak konparatzea, haien ezaugarriak, erabilera-baldintzak eta utilitatea aztertuz.

EI2.5. Erakunde txiki bateko espazioa antolatzeko kasu praktikoko batetik abiatuta, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Ingurunea egokitze behar espezifikoak identifikatzea: mugikortasunekoak, lekuz aldatzekoak, erabilerakoak eta utilitatekoak.
- Egoerara egokitu espazioa-banaketa diseinatzea. - Behar bezala funtzionatzea bermatzeko aplikatu beharreko laguntza teknikoak eta egin beharreko egiaztapenak identifikatzea.
- Altzarien eta laneko tresnen zerrenda egitea.
- Esku-hartzeak programatzea eta haien denborak zehaztea.



El2.6 Zainketa indibidualizatuen planei buruzko dokumentaziotik abiatuta:

- Haiek osatzen dituzten elementuak definitzea.
- Erabiltzaileak kasu bakoitzean aurkeztutako ezaugarriak eta beharrak deskribatzea.
- Haiek egiteko behar den informazioa ondorioztatzea.
- Planifikatutako esku-hartzeak erabiltzailearen beharrekina eta ezaugarriekin lotzea.
- Ezarritako irizpideak eta estrategiak identifikatzea.

Edukiak:

1. Erakunde sozialetan jarduerak prestatzen parte hartzea

- Jarduera-protokoloak eta haien segimendua.
- Erabiltzaileak erakundeko eguneroko jardueretan parte hartzea.
- Erabiltzailearen autonomia.
 - Eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko autonomia.
 - Eguneroko bizitzako tresna bidezko jarduerak egiteko autonomia.
- Erabiltzailearen eguneroko bizitzako jarduerak egiten laguntzea, profesional arduradunaren jarraibideen arabera.
- Erabiltzaileei jarduerak egiteko informazioa ematea:
 - Erabiltzaileen ezaugarriak eta interesak.
 - Gorabeherak eta haiekiko erantzunak.

2. Erakunde sozialetako jardueren antolamendua

- Jarduera-protokoloak.
- Jarduerari buruzko informazioa transmititzea erabiltzaileari. Hautazko, borondatezko eta nahitaezko jarduerak.
- Erakunde sozialetan jarduerak egiteko gehien erabiltzen diren materialak maneiatzea.
 - Material suntsikorrak eta inbentariagarriak.
 - Mahai-jokoak.
 - Inbentarioak eta zerrendak egitea.
- Laguntza teknikoen egoera berrikustea.
- Lekua eta altzariak banatzea eta egokitzea.
- Segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak egiaztatzea.
- Gertakariak erregistratzea.

3. Erakunde soziosanitario bateko antolamendu funtzionalean parte hartzea

- Zereginak banatzea.
 - Ordu-tegiak.
 - Txandak.
 - Lantaldeak.
- Informazioa transmititzea. Mendeko erabiltzaileen beharretara egokitutako hizkerak erabiltzea.
- Esku-hartzeen kalitate-adierazleak erabiltzea.

4. Zainketa-plan indibidualizatua egiten laguntzea eta laneko oinarritzko dokumentazioa

- Zainketa-plan indibidualizatua.
 - Hura osatzen duten elementuak.
 - Esku hartzen duten profesionalak.
- Erabiltzailearen banakako txostena. Osaera.
- Jarduera-protokoloak.
- Gertakari-orriak: betetzea.
- Mendeko pertsonentzako erakundeetan erabiltzen den dokumentazio soziosanitarioa erabiltzea.
- Informazioa biltzea, eta lantaldeari eta diziplinari taldeari transmititzea.



2. prestakuntza-modulua: HIGIENE- ETA ELIKAGAI-ARRETA ESKU-HARTZEAK ERAKUNDEETAN

Kodea: MF1017_2

Gaitasun-atal honi lotuta dago: UC1017_2 Mendeko pertsonentzako arreta fisikoko esku-hartzeak egitea erakunde-eremuan.

Iraupena: 70 ordu

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Higiene pertsonaleko teknikak egokitzea eta aplikatzea, erabiltzaileen ezaugarriak aztertuz eta haien inguruneak bete behar dituen higie-baldintzak identifikatuz.

E1.1 Erabiltzaile-kolektiboen ezaugarri psikofisikoak identifikatzea, arreta berezia jarri zahartze-prozesuaren ondorio diren arreta fisikoko beharrei.

E1.2 Larrazal-organoaren patologiarik ohikoa eta ezaugarri anatomofisiologiko nagusiak deskribatzea.

E1.3 Erabiltzaileak behar dituen higie-zainketak zehaztea, haren osasun-egoera eta mendekotasun-maila kontuan hartuta.

E1.4 Norberaren garbitasunerako prozedurak zein diren adieraztea, erabiltzaileen egoeraren eta beharren arabera horretarako behar diren produktuak, materialak eta laguntza teknikoak zehaztuz.

E1.5 Presioagatiko ultzerak sortzeko mekanismoak, gehien agertzen diren gorputz-atalak eta haiek prebenitzeko neurri nagusiak eta produktuak deskribatzea.

E1.6 Gernua eta eginkariak jasotzeko prozedurak adieraztea, erabiltzaileen egoeraren eta beharren arabera horretarako behar diren materialak zehaztuz.

E1.7 Protesiak garbitzeko eta kontserbatzeko teknikak deskribatzea.

E1.8 Meztitze-prozedurak deskribatzea, horretarako behar diren materialak eta produktuak zehaztuz.

E1.9 Erabiltzaileen higie pertsonalek arretako kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta:

- Kasuaren arabera erabiliko diren materialak identifikatzea eta hautatzea.
- Norbere garbitasunerako teknikak egitea.
- Eginkariak eta gernua jasotzeko ohe-ontzia eta/edo botila erabiltzea, eta pertsona inkontinentei eta/edo kolostomia egin zaienei eginkariak eta gernua jasotzea.

A2: Erabiltzaileen inguruko ordena eta baldintza higieniko-sanitarioak mantentzeko teknikak egokitzea eta aplikatzea.

E1.1 Erabiltzaileen ohiko inguruneak erakundean bete behar dituen baldintza higieniko-sanitarioak zerrendatzea, eta haien ezaugarriak zehaztea.

E1.2 Erabiltzaileen ohea egiteko eta/edo garbitzeko teknikak, gehien erabiltzen diren gehigarriak eta egoera berezietan haiek ordeztzeko irizpideak adieraztea, erosotasun handiena kontuan hartuz erabiltzaileen beharren arabera.

E2.3 Koltxoi-motak, ohe-jantzi motak eta ohe-jantziak tolesteko eta prestatzeko teknikak deskribatzea.

E2.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuak dituen kasu praktiko batean, ohe librea prestatzeko eta irekitzeko teknikak egitea, eta erabiltzaileen gela ordenatzea.

A3: Erabiltzaileari jaten ematen laguntzeko teknika aplikatzea, agindutako jarraibideei jarraituz.

E1.1 Aparatu endokrinoaren eta digestiboaren ezaugarri anatomofisiologiko eta patologiko nagusiak deskribatzea.

E1.2 Elikagaiak ahoz emateko teknikak deskribatzea, materialak banan-banan aipatuz.

E1.3 Jaten ematen laguntzeko egoeren kasu praktiko batean:

- Elikagaia hartzeko bidearen arabera jarrera anatomiko egokiena adieraztea.
- Elikagaiak ematen laguntzeko teknikak simulatzea, erabiltzaileen mendekotasun-mailaren arabera.





- Bere eskumeneko erregistroak datuekin betetzea dagozkion formatuan eta euskarrian, baita dieta-txantiloia ere, erabiltzaile bakoitzaren beharren arabera.

Edukiak

1. Mendeko pertsonaren eta haren ingurunearen higieena eta garbitasuna egitea erakundeetan

- Larruazal-organoaren printzipio anatomofisiologikoak eta gorputzeko higienarako oinarriak. Patologiarik ohikoena.
- Gorputzeko higieena eta garbitasunerako teknikak aplikatzea:
 - Dutzatzea edo bainuontzian bainatzea.
 - Ohean bainatzea.
 - Alzheimerre duten pertsonak bainatzea.
 - Diabetes duten pertsonen oinak zaintzea.
 - Aho-higieena.
 - Gorputzeko tolesak garbitzea.
 - Arrisku-guneak garbitzea.
- Presioagatiko ultzerak prebenitzea eta tratatzea:
 - Gorputzeko higieena.
 - Larruazala babestea.
 - Jarrerak aldatzea.
- Erabiltzaile inkontinentearen eta kolostomia egin zaionaren zainketak aplikatzea.
- Infekzioak prebenitzea eta kontrolatzea. Gaixotasun kutsagarriak isolatzeko eta prebenitzeko prozedurak.
- Erabiltzaileari jantzen laguntzea:
 - Erabiltzailearen arropa eta oinetakoak maneiatzea.
 - Haiek erabiltzeko laguntzak, gehigarriak.
- Hil ondoko zainketetan laguntzea.

2. Erabiltzailearen gelako ordena eta higieen-baldintzak mantentzea

- Erabiltzailearen gauzak antolatzea eta garbitzea.
- Ingurune-kondizioak kontrolatzea:
 - Argitasuna.
 - Temperatura.
 - Aireztapena.
 - Zarata.
- Oheak egiteko teknikak:
 - Ohe-motak eta haiek egiteko moduak.
 - Ohe-jantzia: mota, osagarriak, klimatologia.
 - Ohearen posizioak.
 - Ohe itxiak eta okupatuak egiteko protokoloak.

3. Elikagaiak ematea eta hondakinak jasotzea erakundeetan

- Metabolismoaren bilakaera bizi-zikloan.
- Sistema digestibo eta endokrinoren printzipio anatomofisiologikoak. Erlazionaturako patologia.
- Dieta-orriak egiaztatzea:
 - Erakunde soziosanitarioetako dietak eta menuak.
 - Patologia berezietarako menuak.
- Ahotik elikatzea:
 - Jaten emateko laguntza teknikoak.
 - Jaten ematen laguntzea: mahai-tresna, plater eta edalontzi bereziak.
 - Erabiltzailearen egoeraren arabera jarraitbideak.
 - Jatea errazten duten erabiltzailearen jarrerak.
- Hondakinak jasotzeko teknikak.
- Arriskuak prebenitzea elikaduran eta hondakinak jasotzean.

3

3. prestakuntza-modulua

ARRETA SOZIOSANITARIOKO ESKU-HARTZEAK ERAKUNDEETAN

Kodea: MF1018_2

Gaitasun-atal honi lotuta dago: UC1018_2 Mendeko pertsonentzako arreta soziosanitarioko esku-hartzeak egitea erakunde-eremuan.

Iraupena: 70 ordu

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Erabiltzaileen behaketa eta/edo miaketa errazteko materialak eta tresnak hautatzea eta prestatzea, ezarritako protokoloaren eta zainketa-planaren arduradunaren jarraibideen arabera.

EI1.1 Sistema digestibo eta endokrinoen eta arnas sistema eta iraitz-sistemaren ezaugarri anatomofisiologiko nagusiak eta patologiarik ohikoenak deskribatzea.

EI1.2 Medikatu batek miazteko posizio anatomiko normalizatuenak deskribatzea, erabiltzailearen egoeraren eta kondizioen arabera.

EI1.3 Kasu praktiko batean, tenperatura eta tentsio arteriala neurtzea, haiek lortzeko gorputz-atalik ohikoenak eta horretarako materiala kontuan hartuta.

EI1.4 Gluzemiaren neurketa digitala egiteko prozedurak deskribatzea.

A2: Higiene-arretan eta oinarritzko osasun-zainketan gehien erabiltzen diren materialak eta tresnak garbitzeko eta desinfektatzeko prozedura aplikatzea, eta laginak jasotzeko prozesuak deskribatzea.

EI2.1 Desinfekzio-prozesua zehaztea, erabili behar diren metodoak identifikatuz erabil daitezkeen baliabide materialen ezaugarrien arabera.

EI2.2 Erabil daitezkeen baliabide materialak garbitzeko eragiketen segida deskribatzea.

EI2.3 Esterilizazio-prozesuaren faseak eta ezaugarriak adieraztea, erabili beharreko teknikak eta prozesu horien kalitatea kontrolatzeko metodoak deskribatuz.

EI2.4 Kasu praktiko batean:

- Kasuaren ezaugarrietara egokitutako higiene-teknika erabakitzea, eta garbiketa-baliabideak eta -produktuak teknika horren arabera aukeratzea.
- Material-motara egokitutako garbiketa-teknikak erabiltzea.
- Desinfekzio-teknikak egitea, emaitzen kalitatea ziurtatuz.
- Infekzioak kontrolatzeko eta prebenitzeko prozedurak deskribatzea.
- Teknikak eta bitartekoak deskribatzea, jaso beharreko lagin biologikoaren jatorriaren arabera.
- Erabiltzen diren produktuen hondakinekin lotutako arriskuak deskribatzea.

A3: Medikamentuak ahotik, uzkitik eta bide topikotik emateko aginduak gauzatzea, erabili behar den materiala zehaztuz eskatutako teknikaren arabera.

EI3.1 Medikamentuak emateko biderik ohikoenen eta medikamentuak hainbat bidetatik emateko materialen ezaugarri anatomofisiologikoak deskribatzea.

EI3.2 Aerosolterapia- eta oxigenoterapia-teknikak aplikatzeko prozedurak adieraztea, baita haiek emateko behar diren materialak ere.

EI3.3 Medikamentuak ematearekin lotutako arrisku nagusiak deskribatzea, medikamentu-motaren eta emateko bidearen arabera.

EI3.4 Tratamendu lokalak aplikatzeko eta medikamentuak emateko kasu praktiko batean.

- Medikamentuak ahotik eta bide topikotik emateko materialak aukeratzea.
- Azaldutako egoerarako hotza eta beroa aplikatzeko metodarik egokiena aukeratzea.
- Medikamentuak prestatzea.
- Medikamentuak ahotik, uzkitik eta bide topikotik ematea.

EI3.5 Teknika bat ala bestea erabiltzerakoan kontuan izan behar diren neurri higieniko-sanitarioak zehaztea.



A4: Erabiltzaile bat lekuz aldatzeko, mobilizatzeko eta hari ibiltzen laguntzeko teknikak aplikatzea, haren mendekotasun-mailaren arabera.

EI4.1 Oheratuta dauden pertsonak posizio egokian jartzeko teknikak eta haien aplikaziorik ohikoenak —haien egoeraren eta kondizioen arabera— deskribatzea.

EI4.2 Mendeko pertsonak mobilizatzeko, ibiltzeko eta lekuz aldatzeko teknikak zein diren adieraztea, haien egoeraren eta kondizioen arabera egokituz, kargatze seguru bat bermatuko duten eta lesioak agertzea prebenituko duten prozedurak eta moduak identifikatuz.

EI4.3 Erabiltzaileari eman behar zaion informazio zehatza eta hura transmititzeko prozedurarik egokiena identifikatzea, erabiltzailea orientatzeko, hezteko eta haren autonomia sustatzeko, betiere, haren ahalbideen arabera, lekuz aldatzeko, mobilizatzeko eta posizio egokian jartzeko jardueretan eta laguntza teknikoan mantentze-lanetan.

EI4.4 Kasu praktiko batean, mobilizatzeko, lekuz aldatzeko eta ibiltzeko teknikak aplikatzea erosotasun-beharren arabera eta erabiltzailearen mendekotasun-mailaren arabera, dagokionean agindutako laguntza teknikoak erabiliz.

A5: Larrialdietako eta lehen laguntzako oinarritzko osasun-teknikak deskribatzea, egoeraren arabera egokiena zein den zehaztuz.

EI5.1 Deskribatzea hil edo biziko larrialdi-kasu bat, unitate edo zerbitzu batean aurreikusitako jarduera-mekanismoak, eta azaltzea bihotz-biriketako bizkortzerako, kanpoko odoljarioetarako eta istripua izan dutenei eta politraumatizatuei aplikatu beharreko teknikak.

EI5.2 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan:

- Larrialdietako zainketak aplikatzea erreduretan.
- Larrialdietako zainketak aplikatzea izozketetan.
- Larrialdietako zainketak aplikatzea deskarga elektrikoetan.
- Larrialdietako zainketak aplikatzea intoxikazioetan.
- Larrialdietako zainketak aplikatzea hozkada eta ziztadetan.
- Larrialdietako zainketak aplikatzea gorputz arrotzak irenstean.

Edukiak:

1. Mendeko pertsonen behar bereziak ezagutzea

- Egoera bereziak: familiar gabeko erabiltzaileak, familia desegituratuak.
- Arreta fisikoko jardueren bilakaera funtzionala eta garapena aztertzea eta erregistratzea.
 - Aztertze-teknikak eta -tresnak aplikatzea, erabiltzailearen eta haren ezaugarrien arabera.
- Eguneroko bizitzarako laguntza tekniko eta teknologiko motak.

2. Mendeko pertsonentzako arreta sanitarioko parte-hartzea eremu soziosanitarioan

- Anatomofisiologia eta patologiarik ohikoenak.
- Bizi-konstanteak hartzen parte hartzea.
- Medikamentuak emateko parte hartzea: ahotik, uzkitik eta bide topikotik.
- Diabetes duten pertsonak medikatzea.
- Aerosolterapia- eta oxigenoterapia-teknikak aplikatzen laguntzea.
- Tratamendu lokalak eta hotza eta beroa aplikatzeko metodoak aplikatzen laguntzea.
- Medikatzeko materialak erabiltzea.
- Medikamentuen arriskuak.
- Zeregin soziosanitarioetan laneko arriskuak prebenitzea.

3. Erabiltzaileak mobilizatzen, lekuz aldatzen eta ibil daitezen laguntzea

- Giza gorputza sostengatzeko eta mugitzeko printzipio anatomofisiologikoak.
- Patologiarik ohikoena. Artikulazioen biomekanika.
- Nerbio-sistemaren printzipio anatomofisiologikoak.
- Posizio anatomikoak.
- Gorputz-mekanikaren printzipioak.
- Mobilizatzeko, lekuz aldatzeko eta ibiltzeko teknikak:
 - Lekuz aldatzeko prestatzea.
 - Mendeko pertsonak mobilizatzea.



- Ibiltzen denean harekin egotea.
 - Erabiltzailea erortzea eta hark istripuak izatea prebenitzea.
 - Mendeko pertsonak ibiltzeko, lekuz aldatzeko eta mobilizatzeko laguntza teknikoak.
- Laneko arriskuak prebenitzea ibiltzeko, lekuz aldatzeko eta mobilizatzeko zereginetan.

4. Erakundeetako larrialdi-egoeretako lehen laguntzak

- Arrisku-egoerak ezagutzea: esku hartzeko uneari buruzko protokoloak eta arauak. Profesional arduradunarentzako abisuak.
- Kasu hauetan berehala jarduteko teknikak:
- Intoxikazioak.
 - Gorputz arrotzak irenstea, kontrako eztarritik zerbait sartzea.
 - Traumatismoak. Heskailuak eta immobilizazioak.
 - Bihotz-biriketako bizkortzea.
 - Kanpoko odoljarioak.
 - Erredurak.
 - Izozketak.
 - Deskarga elektrikoak.
 - Ziztadak eta hozkadak.
- Botikinak mantentzea.

5. Material eta tresna sanitarioak garbitzeko arauen betetzea

- Material sanitarioak garbitzea.
- Desinfektatze-prozesua. Metodoak eta materialak.
- Esterilizazio-prozesua. Metodoak eta materialak.
- Infekzioak prebenitzea.
- Hondakin sanitarioak ezabatzea.
- Laneko arriskuak prebenitzea material sanitarioa garbitzeko zereginetan.

4. prestakuntza-modulua

LAGUNTZA PSIKOSOZIALA ETA HARREMAN- ETA KOMUNIKAZIO-ARRETA ERAKUNDEETAN

Kodea: MF1019_2

Gaitasun-atal honi lotuta dago: UC1019_2 Mendeko pertsonentzako arreta psikosozialeko esku-hartzeak egitea erakunde-eremuan.

Iraupena: 130 ordu

4.1. prestakuntza-atala

MENDEKO PERTSONEN ANIMAZIO SOZIALA ERAKUNDEETAN

Kodea: UF0129





Iraupena: 30 ordu

Gaitasun-erreferentea: Prestakuntza-atal hau bat dator LB1 eta LB2 lanbide-burutzapenekin.

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Harreman sozialeko trebetasunekin laguntzeko eta haiek garatzeko esku hartzen den kolektiboetara egokitutako teknikak eta estrategiak aplikatzea.

EI1.1 Mendeko pertsonen harreman sozialen oinarritzko ezaugarriak eta beharrak deskribatzea.

EI1.2 Helburu hauek lortzeko egin behar diren esku-hartzeak eta izan behar diren irizpide eta estrategiak ezagutzea:

- Erabiltzaileek laguntza psikosoziala emateko.
- Harreman berriak sortzeko.
- Erabiltzailearen eta haren ingurunearen arteko komunikazioa hobetzeko.

EI1.3 Eguneroko egoeretara egokitutako trebetasun sozialak garatzeko eta haietan laguntzeko teknikak eta estrategiak aplikatzen laguntzea.

EI1.4 Kasu praktikoko batean, erakunde batera egokitzeko aldian mendeko pertsonengan detektatutako jarrera eta portaera bereziak identifikatzea.

Edukiak:

1. Mendeko pertsonentzako arreta psikosozialean parte hartzea erakunde soziosanitarioan

- Mendeko pertsonak erakundera egokitzea sustatzea:
 - Ezaugarriak.
 - Egokitzeapena laguntzen edo zailtzen duten faktoreak.
 - Egokitzeapen-aldian laguntza ematea.
 - Esku hartzeko estrategiak.
- Mendeko pertsonen harreman soziala sustatzea:
 - Ezaugarriak.
 - Oinarritzko trebetasun sozialak.
 - Faktoreak.
 - Zailtasunak.
 - Harreman soziala sustatzeko teknikak.
 - Laguntzeko eta harreman sozialetarako jarduerak, banakakoak eta taldekoak.
 - Bitartekoak eta baliabideak: teknologia berrien aplikazioa, ingurune baliabideak.
- Giroa erabiltzea autonomia pertsonala, komunikazioa eta harreman soziala sustatzeko faktore gisa.
 - Espazio-elementuak eta materialak: banaketa, aurkezpena.
 - Espazioen apainketa.
 - Mendeko pertsona gaixoen motibazioaren eta ikaskuntzaren ezaugarri espezifikoak.

2. Erakundeetan dauden mendeko pertsonen ezaugarri psikologikoak ezagutzea

- Oinarritzko kontzeptuak:
 - Bizi-zikloa.
 - Portaera.
 - Prozesu kognitiboak.
 - Motibazioa.
 - Emozioa, asaldurak.
- Zahartze-prozesua.
 - Gaixotasuna eta eriondoa: aldaketa biopsikosozialak.
 - Bizi-kalitateko gorabeherak.
 - Ingurune sozioafektiboaren eta adineko pertsonaren sexualitatearen bilakaera.
 - Arretako eta osoko laguntzako behar bereziak.
 - Adineko pertsonen bizi-kalitatea, laguntza eta autodeterminazioa.



- Oinarrizko kontzeptuak.
- Gaixotasunarekin eta eriondoarekin lotutako ezaugarriak eta beharrak.
- Mendeko pertsonen desgaitasunak:
 - Kontzeptua.
 - Sailkapena eta etiologiari ohikoenak.
 - Ezaugarriak eta beharrak.
 - Desgaitasunen bat duten pertsonen bizi-kalitatea, laguntza eta autodeterminazioa.

3. Erabiltzaileen ondoan egotea

- Erakunde batean dauden mendeko pertsonen ondoan egotearen kontzeptua.
- Esku-hartzeko eremuak, mugak eta deontologia.
- Profesionalaren funtzioak eta zeregina laguntza ematean.
- Esku-hartze ohikoenak.
- Harreman soziala sustatzeko teknikak eta jarduerak.
- Komunikatzeko oinarrizko teknika: banakakoak eta taldekoak.
- Jarduerak erabiltzailearekin egitea.

4.2. prestakuntza-atala

ERAKUNDEETAN DAUDEN MENDEKO PERTSONEN EGUNEROKO JARDUERAK MANTENTZEA ETA HOBETZEA

Kodea: UF0130

Iraupena: 50 ordu

Gaitasun-erreferentia: Prestakuntza-atal hau bat dator LB3 lanbide-burutzapenarekin.

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Jarduerak egitera erabiltzailearekin joateko teknikak eta estrategiak aplikatzea.

EI1.1 Mendeko pertsona taldeek jarduerak egitean dituzten ezaugarriak eta funtzionamendua deskribatzea.

EI1.2 Erabiltzaileen interesak eta mendeko pertsonaren autodeterminazio-printzipioak errespetatzeko beharra ezartzea jarduerak egiteko garaian.

EI1.3 Jaiak eta ekitaldi bereziak prestatzen parte hartzea erakunde sozial batean.

EI1.4 Taldeka parte hartzen den egoera praktikoetan, erabiltzaileengan identifikatzea emozio biziko zeinuak eta jarrerak eta krisi-egoerak, eta haiek bideratzeko jardura-estrategiak proposatzea.

EI1.5 Taldekako egoeretan, erabiltzaileekin aplikatzea galdetegi errazak, talde baten funtzionamendua aztertze prozedurak eta/edo teknikak, kideen paperak, funtzioak eta zereginak identifikatuz eta egindako jardueren garapena eta egokitzapena identifikatuz.

Edukiak:

1. Funtzio kognitiboak mantentzea eta lantzea erakundeko eguneroko egoeretan:

- Oroimena lantzeko teknikak.
- Arreta lantzeko teknikak.
- Orientazio espaziala, denborazkoa eta pertsonala lantzeko teknikak.
- Arrazonomendua lantzeko teknikak.
- Esku hartzeko oinarrizko estrategiak prestatzea.

2. Autonomia pertsonaleko ohiturak mantentzea eta lantzea erakundeko eguneroko egoeretan:

- Esku-hartzeko teknikak, prozedurak eta estrategiak.
- Gatazkak konpontzeko teknikak.



- Jarrera aldatzeko prozedurak eta estrategiak.
- Taldeko portaera.
- Talde-dinamikak erabiltzea.
- Erabiltzaileari behartzea egoera berezietan, jaietan eta ekitaldietan:
 - Behatzeko oinarrizko teknikak.
 - Krisi-egoeretan esku hartzea.
 - Gertakarien berri ematea diziplinarteko taldeari.

4.3. prestakuntza-atala

ERAKUNDEETAN DAUDEN MENDEKO PERTSONEKIN KOMUNIKATZEKO TEKNIKAK

Kodea: UF0131

Iraupena: 50 ordu

Gaitasun-erreferentia: Prestakuntza-atal hau bat dator LB4 lanbide-burutzapenarekin.

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Mendeko pertsonen arretako testuinguruan, komunikatzeko zailtasun bereziak dituzten erabiltzaileek harreman sozialak izatea sustatzeko egokiak diren komunikazio-estrategiak zehaztea eta aukeratzea.

- EI1.1 Komunikatzeko zailtasunak dituzten pertsonek eguneroko bizitzan dituzten zailtasunak azaltzea.
- EI1.2 Testuinguru jakin baterako egokiak diren ahozko eta ez-ahozko komunikazioko teknikak aukeratzea eta erabiltzea.
- EI1.3 Profesionalaren eta erabiltzaileen arteko komunikazio-kasu praktiko batean, identifikatzea egoera bakoitzeko testuinguruak eta ezaugarri interaktiboak, eta komunikazioa sustatzen duten jarduera-baliabide eta -estrategia nagusiak.
- EI1.4 Mendeko pertsonekiko ahozko komunikazioko kasu praktiko batean:
 - Egunean zehar erabiltzailea zaintzeko eta osoko arreta emateko komunikazioa bermatuko duten ohiko sistemak ezagutzea.
 - Komunikazioa eta erabiltzaileari osoko arreta ematea erraztuko duen laguntza-kode bat erabiltzea baliabide hauetatik abiatuta: idazketa, argazkiak, objektuak eta marrazkiak.
 - Mezu errazak igortzea eta ulertzea, eguneroko gaiei buruzko elkarriketak izateko.

Edukiak:

1. Erabiltzailearekiko komunikazio-prozesua hobetzea

- Komunikazio-prozesua, ezaugarriak.
- Komunikazioko oztopoak, interferentziak eta zaratak.
- Erabiltzailearekiko komunikazioa hobetzeko jarraibideak: argitasuna, soiltasuna, arreta, enpatia.
- Ez-ahozko komunikazioko oinarrizko teknikak.
- Erakundeko lexikoa erabiltzailearen ezaugarrietara egokitzea.
- Erabiltzailearen familiarekin eta ingurunearekin komunikatzea.

2. Komunikazio-teknika alternatiboen eta handigarrien erabilera

- Komunikazio-behar bereziak.
- Komunikazioko esku hartzeko estrategiak eta baliabideak.
- Komunikazio-sistema alternatiboak:
 - Kontzeptua eta sailkapena.
 - Arreta soziosanitarioko oinarrizko hiztegia erabiltzea arreta sozialeko erakundeetan ohiko hizkuntza alternatiboetan: BLISS, SPC eta ZME.
- Komunikazio alternatibo eta handigarriko laguntza teknikoak.
- Alzheimerra duten gaixoei komunikatzeko teknikak.

5

5. prestakuntza-modulua

MENDEKO PERTSONENTZAKO ARRETA SOZIOSANITARIOKO LANEKOAK EZ DIREN JARDUNBIDEAK ERAKUNDE SOZIALETAN

Kodea: MP0029

Iraupena: 80 ordu

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

- A1: Erabiltzailearen eguneroko bizitzako jardueretarako esku-hartzeak egitea, haren autonomia hobetzen eta/edo mantentzen lagunduz.
- E11.1 Erakundearen sortzen diren egoerei jarrera egokiarekin erantzutea.
 - E11.2 Erabiltzaileari behar bezalako informazioa ematea jarduera aurreikusiei buruz.
 - E11.3 Jarduerak erabiltzaileen bananako ezaugarrietara egokitzea.
- A2: Diziplinarteko taldearekin komunikatzea, erakundeak ezarritako bideen arabera.
- E12.1 Gertakari bat gertatzean, taldeko dagokion pertsonari jakinaraztea.
 - E12.2 Hizkuntza egokia erabiltzea, zehaztapena zainduz.
- A3: Mendeko pertsonen garbitasuna egitea, haren ingurunearen ordena eta higieña errespetatuz.
- E13.1 Erabiltzailearen behar eta ezaugarrietara egokitutako materialak aukeratzea.
 - E13.2 Eginkariak eta/edo gernua jasotzeko teknika pazientearen/erabiltzailearen egoerara egokitzea.
 - E13.3 Ohea erabiltzailearen ezaugarrien arabera prestatzea.
 - E13.4 Erabiltzailearen gela ordenatzea, haren behar eta ezaugarrietara egokituz.
- A4: Erabiltzaileari jaten ematen laguntzeko trebetasunak garatzea, emandako aginduen arabera.
- E14.1 Erabiltzailea hartu behar duen elikagai-motara egokitutako jarrera anatomikoan jartzea.
 - E14.2 Erabiltzaileari mendekotasun-mailaren arabera laguntza ematea.
 - E14.3 Dieta-erregistroak behar bezala betetzea.
 - E14.4 Prozesu hauetan guztietan erabiltzailea errespetuz eta diskrezioz tratatzea.
- A5: Erabili ohi diren materialak garbitzea eta desinfektatzea.
- E15.1 Kasu bakoitzerako egokiena den higie-ne-teknika erabakitzea.
 - E15.2 Desinfektatze-tekniken emaitza egiaztatzea.
 - E15.3 Infekzioak kontrolatzeko eta prebenitzeko prozedurak aplikatzea, erakundearen ezarritako protokoloaren arabera.
 - E15.4 Laginak jasotzeko, haien izaera kontuan hartuta egokia den teknika aplikatzea.
 - E15.5 Arriskuak kontrolatzeko arauak aplikatzea.
 - E15.6 Erabiltzaileak miatzeko materialak eta tresnak aukeratzea eta prestatzea, protokoloari eta arduradunaren oharren jarraituz.
- A6: Medikamentuak hainbat bidetatik ematea (ahotik, uzkitik edo bide topikotik).
- E16.1 Tratamendu bakoitzera egokitutako materiala aukeratzea.
 - E16.2 Medikamentuak arauen arabera ematea, erabiltzaileari ahalik eta trabarik txikiena eraginez.
- A7: Erabiltzaileekin egitea haiek erakundearen dituzten jarduerak.
- E17.1 Emozio-krisiko egoerak identifikatzea, eta haien aurrean jarrera egokia izatea.
 - E17.2 Erabiltzaile-taldearen erreakzioak aztertzea eta azaltzea, taldeko harremanetako mekanismoak ezagutuz.
- A8: Komunikazio-teknikak aplikatzea, komunikatzeko arazoak dituzten erabiltzaileen harreman sozialak sustatzeko.
- E18.1 Erabiltzaileen komunikazioa sustatzeko baliabideak eta estrategiak erabiltzea.
 - E18.2 Erabiltzailearekiko komunikazioa hobetzen laguntzeko metodo egokia erabiltzea (idazketa, argazkiak, keinuak etab.)
 - E18.3 Erabiltzaileekin hitz egiteko hizkera erraza erabiltzea.
- A9: Enpresaren lan-prozesuetan parte hartzea, lantokian zehaztutako arauak eta argibideei jarraituz.
- E19.1 Arduraz jokatzeko, bai giza harremanetan, bai egin beharreko lanetan.
 - E19.2 Lantokiko prozedurak eta arauak errespetatzea.



- EI9.3 Egitekoei arretaz ekitea, jasotako argibideei jarraikiz, eta enpresaren lan-erritmora egokitu daitezen saiatzea.
- EI9.4 Lantokiko ekoizpen-prozesuetan integratzea.
- EI9.5 Zehaztutako komunikazio-bideak erabiltzea.
- EI9.6 Arriskuak prebenitzeko, laneko osasuneko eta ingurumena babesteko arauak errespetatzea une oro.

Edukiak:

1. Dokumentazioaren eta protokoloen erabilera erakunde-eremuan:

- Jarduera-protokoloak erabiltzea.
- Dagokion informazioa transmititzea erabiltzaileari.
- Gertakariak dagokion dokumentuan erregistratzea, eta informazioa transmititzea.
- Kasu bakoitzari dagokion dokumentazio soziosanitarioa erabiltzea.

2. Higiene- eta elikagai-arretarekin lotutako jardueren garapena erakundeetan:

- Erabiltzaileen gorputzeko higiena eta garbitasuna egitea.
- Etzanera-ultzerak prebenitzea.
- Hainbat ohe-mota egitea, egoera bakoitzerako egokiak diren ohe-jantziak eta materialak aukeratzuz.
- Erabiltzailearen ingurune-kondizioak eta gauzak zaintzea.
- Ahotik elikatzea, beharrezkoak diren laguntzak erabiliz.
- Hondakinak jasotzea (gernua, eginkariak eta bestelakoak).

3. Arreta soziosanitarioa erakundeetan:

- Betiere haien eskumen-maila errespetatuz:
 - Arreta fisikoko jardueren bilakaera funtzionala eta garapena aztertzea eta erregistratzea.
 - Bizi-konstanteak hartzen parte hartzea.
 - Hainbat medikamentu-mota ematea.
 - Erabiltzaileak mobilizatzea, lekuz aldatzea eta ibiltzea, laguntza tekniko egokiak erabiliz.
 - Hainbat larrialdi-egoeren aurrean jardutea dagozkien lehen laguntzak aplikatuz.
 - Arduradunari horrelako gertakarien berri emateko bide egokiak erabiltzea, bai denborari, bai moduari dagokionez.

4. Laguntza psikosozialeko eta komunikazioko teknikak erakundeetan:

- Erabiltzailea integratzea sustatzen duten trebetasun sozialak.
- Erabiltzaileari laguntzeko jarduerak, haren ezaugarriak kontuan hartuta.
- Erabiltzailearen adimen-gaitasunak estimulatzeko laguntzea.
- Erabiltzailearen autonomia pertsonala sustatzea eguneroko jardueretan.
- Erabiltzailearekiko komunikazioa hobetzeko behar diren eta egokiak diren laguntzak erabiltzea.
- Komunikazio-sistema ohikoak eta alternatiboak: erabiltzailearen ezaugarri pertsonaletara (sexua, adina, maila kulturala, jatorria) egokitutako hizkera erabiltzea (ahozkoa, keinuzkoa edo idatzizkoa).

5. Integrazioa eta komunikazioa lantokian

- Jarrera arduratsua izatea lantokian.
- Lantokiko prozedurak eta arauak errespetatzea.
- Jasotako argibideak interpretatzea eta arretaz gauzatzea.
- Enpresako ekoizpen-prozesua ezagutzea.
- Lantokiko komunikazio-bideak erabiltzea.
- Enpresako lan-erritmora egokitzea.
- Arriskuak prebenitzeko eta laneko osasuna eta ingurumena babesteko arauak betetzea.

IV PRESTATZAILEENTZAKO ESKAKIZUNAK, GUNEEN, INSTALAZIOEN ETA EKI- PAMENDUEN GUTXIENeko ESKAKIZUNAK, ETA IKASLEAK SARTZEKO IRIZPIDEAK

PRESTATZAILEENTZAKO ESKAKIZUNAK

EKI-
PAMENDUEN, INSTALAZIOEN ETA GUNEEN GUTXIENeko
ESKAKIZUNAK

IKASLEAK SARTZEKO IRIZPIDEAK



PRESTATZAILEENTZAKO ESKAKIZUNAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	BEHARREZKO AKREDITAZIOA	GAITASUN-ATALAREN EREMUAN BEHAR DEN ESPERIENTZIA PROFESIONALA	
		Akreditazioa izanez gero	Akreditaziorik izan ezean
MF1016_2 Esku-hartzeen antolamenduan laguntzea, erakunde-eremuan.	• Medikuntza eta Kirurgian lizentziaduna. • Erizaintza diplomatua. • Psikologia eta Psikopedagogian lizentziaduna. • Gizarte Lanean diplomatua. • Gizarte Hezkuntza diplomatua. • Integrazio sozialeko goi-mailako teknikaria. • Gizarte, kultura eta komunitateko zerbitzuen lanbide-arloko 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiria, gizarte-laguntzaren arlokoa.	1 urte	3 urte
MF1017_2 Higiene- eta elikagai-arretako esku-hartzeak erakundeetan	• Medikuntza eta Kirurgian lizentziaduna. • Erizaintza diplomatua.	1 urte	3 urte
MF1018_2 Arreta soziosanitarioko esku-hartzeak erakundeetan	• Medikuntza eta Kirurgian lizentziaduna. • Erizaintza diplomatua. • Psikologia eta Psikopedagogian lizentziaduna. • Gizarte Lanean diplomatua. • Gizarte Hezkuntza diplomatua.	1 urte	3 urte
MF1019_2 Laguntza psikosoziala eta harreman- eta komunikazio-arreta erakundeetan	• Medikuntza eta Kirurgian lizentziaduna. • Erizaintza diplomatua. • Psikologia eta Psikopedagogian lizentziaduna. • Gizarte Lanean diplomatua. • Gizarte Hezkuntza diplomatua. • Integrazio sozialeko goi-mailako teknikaria. • Gizarte, kultura eta komunitateko zerbitzuen lanbide-arloko 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiria, gizarte-laguntzaren arlokoa.	1 urte	3 urte

Araudiaren arabera, eskatzen den akreditazioa egiaztatzeko, prestatzaileak edo adituak Lanerako Prestatzailearen profesionaltasun-ziurtagiria eduki behar du, edo helduen lanbide-heziketako metodologia didaktikoko prestakuntza baliokidea. Salbuetsita daude:

- Pedagogiako edo Psikopedagogiako titulazioa dutenak, edozein espezialitatetako maisu-maistrak, edo Psikologiako edo Pedagogiako graduatu-titulua dutenak edo Psikopedagogiako espezializazioko graduondoko titulua dutenak.



- Aurreko atalean adierazitakoez bestelako unibertsitate-titulazio ofizial bat eta Hezkuntza Ministerioak, edo baliookideak, emandako espezializazio didaktikoko titulua dituztenak.
- Azken zazpi urteetan enplegurako lanbide-heziketan edo hezkuntza-sisteman gutxienez 600 orduko irakasle-esperientzia izan dutela egiaztatzen dutenak.

GUNEAK, INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

PRESTAKUNTZA-GUNEA	AZALERA (m ²) / 15 IKASLE	AZALERA (m ²) / 25 IKASLE
Erabilera anitzeko gela	30	50
Lantegi-ikasgela soziosanitarioa	60	90

PRESTAKUNTZA-GUNEA	1. M	2. M	3. M	4. M
Erabilera anitzeko gela	X	X	X	X
Lantegi-ikasgela soziosanitarioa	X	X	X	X

PRESTAKUNTZA-GUNEA	EKIPAMENDUA
Erabilera anitzeko gela	– Errotuladoren idazteko arbelak – Ikus-entzunezko ekipoak – Orri birakariak – Ikasgelako materiala – Prestatzaileentzako mahaia eta aulkia – Ikasleentzako mahaia eta aulkiak
Lantegi-ikasgela soziosanitarioa	– Higiene pertsonalerako eta garbiketarako tresnak eta kontsumo-materiala eta tresna eta material sanitarioa. – Esku-ohak eta oheak, ohe-jantzia. – Gurpil-aulkia. – Bastoiak eta makuluak. – Manikiak. – Tantzaz-tantzako zundak. – Hondakinak jasotzeko materiala. – Elikadurarako materiala. – Tenperatura, tentsio arteriala eta glukemia neurtzeko gailu digitalak. – Lehen laguntzetako botikina. – Tresna sanitarioak garbitzeko eta desinfektatzeko oinarritzko materiala. – SPC sistemako piktogramak. – Mendeko pertsonentzako erakundeetako dokumentazio soziosanitarioaren adibideak.



	– Laneko arropa.
Lantegi-ikasgela soziosanitarioa	– Higiene pertsonalerako eta garbiketarako tresnak eta kontsumo-materiala eta tresna eta material sanitarioa. – Esku-oheak eta oheak, ohe-jantzia. – Gurpil-aulkia. – Bastoiak eta makuluak. – Manikiak. – Tantaz-tantazko zundak. – Hondakinak jasotzeko materiala. – Elikadurarako materiala. – Temperatura, tentsio arteriala eta gluzemia neurtzeko gailu digitalak. – Lehen laguntzetako botikina. – Tresna sanitarioak garbitzeko eta desinfektatzeko oinarrizko materiala. – SPC sistemako piktogramak. – Mendeko pertsonentzako erakundeetako dokumentazio soziosanitarioaren adibideak. – Laneko arropa.

Ez da ulertu behar identifikatu diren prestakuntza-guneak itxituren bidez bereizi behar direnik ezinbestean.

Instalazioek eta ekipamenduek dagokien industria-araudia eta araudi higieniko-sanitarioa bete behar dituzte, eta irisgarritasun unibertsala eta parte-hartzaileen segurtasuna bermatzeko neurriak bete.

Prestakuntza-guneak ekipatzeko zenbat tresna, makina eta erreminta behar diren kalkulatzeko, joko da gutxienez 15 ikasle izango direla, eta, beharrezkoa bada, gehiago jarriko dira, ikasle gehiagoren beharrei erantzuteko.

Minusbaliotasunen bat dutenentzako prestakuntzari dagokionez, behar diren egokitzapenak eta doikuntzak egin behar dira minusbaliatuen eskubide-berdintasuna bermatzeko.

IKASLEAK SARTZEKO IRIZPIDEAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EMPLEGU ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES